

BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

2996

EBAZPENA, 2012ko maiatzaren 24koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, zeinen bidez argitaratzen baita Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen Akordioa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen otsailaren 23ko 5/2012 Euskal Autonomia Erkidegoko Legeari buruzkoa.

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusten den erabakia hartu ondoren, eta artikuluko horren c) idatzi-zatian ezarritakoarekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.—Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen Akordioa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen otsailaren 23ko 5/2012 Euskal Autonomia Erkidegoko Legeari buruzkoa. Ebazpen honen eranskinean jaso da, hain zuzen ere, akordioa.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 24a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

2012ko uztailaren 2a, astelehena

ERANSKINA

ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIOAREN ARTEKO ALDEBIKO LANKIDETZA BATZORDEA

Akordioa, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearena, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen otsailaren 23ko 5/2012 Euskal Autonomia Erkidegoko Legeari buruzkoa.

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordeak, 2012ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, akordio hau hartu zuen:

1.– Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen otsailaren 23ko 5/2012 Euskal Autonomia Erkidegoko Legearen zenbait artikuluko direla-eta sortutako desadostasunak ebazteko negoziazioei ekitea; hona hemen artikuluko: 3., 6., 9.b).1, 14.a), 19.2, 21., 22., 23.1.a), 24., 26.1, 27.4, 32.1, 46., 57.2, 58.1.c), 58.2 eta 60.a).

2.– Lantalde bat izendatzea, Aldebiko Lankidetzaren Batzordeari konponbide bat proposatzeko.

3.– Urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, jakinaraztea akordio hau Konstituzio Auzitegiari, 2012ko maiatzaren 24a baino lehen; eta horretaz gain, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Madril, 2012ko maiatzaren 22a.

Ogasun eta Herri Administrazioako ministroa,
CRISTÓBAL MONTORO ROMERO.

Justizia eta Herri Administrazioako sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.